

Sugegorriak barrutik
zulatutako letagin
mugikorak ditu.

Sugegorriaren hozka

Migel Mari Elosegi*

Sugegorriaren kasuan ezin ninteke ohizko artikulua idaztera mugatu. Izan ere, sugegorriari buruz idatzi behar nuela esan nien lagun guztietatik bakar batek ere ez zidan galdetu zer jaten duten, nola ugaltzen diren edota Euskal Herrian zein espezie dauden. Ez horixe! Kontu hauek gustuko ditugun piztizale xeble batzuk kenduta, gehiengoak gauza bakarra jakin nahi zuela konturatu nintzen: “zer egin behar da sugegorriak helduz gero?”. Irakurri ohizko artikulua osagarri modura idatzi dudan artikulua hau eta ea erantzunik aurkitzen duzun.

Suge pozoitsuen hozkek arazo mediko larriak sortzen dituzte eta horien eraginez, munduan urtero 40.000 lagunetik gora hiltzen dira. Kasu gehienak India, Birmania, edo Brasil bezalako lekuetan ematen diren arren, Espainiako Estatuan urtero 3-7 lagun hiltzen direla estimatu zen 1982an. Heriotz hauek, pozoia eraginez ezezik, pozoia aurkako sueroak eragindako erreakzioaren

eraginez gertatzen dira. Euskal Herrian suge pozoitsuek hozkatutako pertsonen kasu mordoaz aztertu baldin badugu ere, heriotz-kasu bakarraren berri izan dugu eta ez dugu baieztatzerik izan, gainera. Heriotz-kasurik ez topatzearen arrazoiak gertatuta ere guk ez aurkitzea izan daiteke edo, aurreko artikuluan idatzi den bezala, baliteke hemengo sugegorrien pozoia hain eraginkorra ez izatea.

Lehenik eta behin, hozka eginez gero eta hortzen kokapena dela eta, inguruotan pozoia sartu dezaketenez suge bakarrak sugegorriak direla esan behar da. Montpellierko sugea (*Malpolon monspessulanus*) pozoitsua den arren, hortzak oso atzean ditu eta pozoia sartu ahal izateko behatza ahoan sartu beharko genioke eta, noski, ez da espezie honen pozoitze-kasu asko ezagutzen. Sugegorriak dagokienez, jadanik aipatu dugu ez direla animalia erasokorak eta hozka defentsa modura erabiltzen dutela. Aztertu diren pozoiketa-kasu gehienak nekazari, onto-biltzaile, mendizale


edota mendian jostaketan zebilen jendearenak ziren eta martxo eta urria bitartean gertatu ziren. Hona hemen adibide pare bat, hozkak nola gerta daitezkeen ikusteko:

1. Jabier Zubillaga leitzarra goiz batean onto-biltzera joan zen. Kotxea utzi eta giltzak gordetzeko poltsarik ez zuela ikusirik, giltzak harri baten azpian gordetzea pentsatu

Mendian berarekin topo eginez gero hoberena bakean uztea da. Hozka egiten badigu, berehala eritexera joan eta sugeen aurkako sueroa sartu behar dugu.

R. Erce





zuen. Bat-batean, eskua harripean sartzarekin batera behatz-puntan sekulako ziztada sumatu zuen eta sugea ikusi zuen. Errepidean zegoez, lehen kotxea geldiarazi eta beste eskuarekin odolari eutsiz, lruñeko eritetxera eraman zuten. Ospitalean suero-ziztada batzuk jarri ondoren ongi zegoenez oso, Leitzara itzuli zen eta arratsalde hartan bertan futbol-partidu bat arbitratu zuen.

- Juan Inazio Elozegi tolosarraren kasua larriagoa izan zen. Mendian sandaliak jantzita onto-bila zebilelarik eta ziurrenik zapaldu ondoren, sugedorriak oinean heldu zion. Torniketea egin eta lasterka laguntza bila abiatu zen errepidera. Auto-gidari batek gelditu eta Tolosako klinikara heldu zenerako denbora dezente pasa zen. Botaka, zorabiatuta eta hanka arras hazita sartu zen eta 8 egun eman behar izan zituen osatu zen arte. Urtetan nabaritu zuen hazkurea hozka pairatutako lekuan.

Aztertutako beste kasu asko ere azaldutakoen antzekoak ziren eta gorputz-enborreko pozoitze-kasuak erabat ezinezkoak ez badira ere, guk ikusitako hozka guztiak gorputz-adarretakoak dira: esku eta oinetan. Hortaz, pozoitzeari aurre hartzea posible da; galtza luzeak, oinetako altuak eta eskularru lodiak erabilia, ia ezinezkoa da gorputzadarretan pozoitzea. Bestalde, kasu batetik bestera ondorioak oso desberdinak direla ikus dezakegu. Sugedorriek lehendik hozkarik egin baldin badute pozoiz gutxiago sartzen dute eta, beraz, eragina ere txikiagoa da. Kontuan hartu behar da ere, hozka pairatu duen pertsonaren sasoia, adina, medikuarengana iritsi arte pasatako denbora, eta abar. Eta orain, irakurle, zure eta nire lagunengaldera erantzuten saiatuko naiz.

Zer egin sugedorriak helduz gero?

Sugearen pozoia aurrakako tratamendua sueroa da eta lehenbailehen hau sartzen saiatu behar dugu.

Aipatutako sueroa, zaldien hiperimmunizaziotik sortzen da sugedorri-espezie desberdinen pozoiak gero eta dosi handiagoetan sartuz eta Pasteur Institutuak ekoizten du. Sueroa sartzeaz gain, infekzioa ekiditeko, antibiotikoak sartzea komeni da; tetanoaren aurkako txertoa aspaldi hartu ez bada ere bai. Bestelako tratamendurik (kortikoideak, analgesikoak...) behar den kasuetan besterik ez da erabiliko. Garai batean sendabelarrak erabiliko zirela uste da, baina zoritxarrez, ez dugu sugeen aurkako belarren berririk jasotzerik izan.

arriskutsua izan daiteke, ahoko mukosetatik edota zauri txikietatik zurgatzen ari denak pozoia barnera dezakeelako.

Kasu guztietan hozkari behar bezalako garrantzia ematea eta denbora pasatzen ez uztea beharrezkoa da ondorio larriarik ez izateko. Gaixoa urduri jartzea, ordea, ez da komeni eta behar ez diren mugimendurik ez egitea hobe, odolaren abiadura ez azkartzeko.

Bukatzeke, egoera traketsena planteatzea bururatzten zait. "Zer egingo zenuke sueroa sartzerik ez bazenu,

R. Erce



Normalean, hozka pairatzen duen pertsonak sueroa gainean ez daramenez, lehenbailehen eritetxera eraman behar dugu. Komenigarria da hozka egin dugun sugea identifikatzea eta kontuan izan sugedorriek letaginen bi zulotxoren marka uzten dutela (batzuetan bat besterik ez) eta marka asko uzten dituzten hozken seinaleak pozoirik gabeko sugeenak izaten direla. Medikuek, bestalde, hozka egin dugun animalia eramatea eskatzen dute, baina askotan hau ezinezkoa denez, kasu horietan nola jokatu behar duten ere argi eduki behar dute (banaketa-mapen arabera, zein espezie izan den jakin liteke, adibidez).

Torniketea egitea egokia izan daiteke, baina gehiegi estutzearen arriskua hozka berarena baino handiagoa da; iskemia edota edema sor litekeelako zainetako zirkulazioa eragozteagatik. Era beran, letaginen inguruan ebakuntzak egin eta pozoia xukatzea ere

Pozoiketa kasu ikusgarria. Sugedorriak besoan hozkatutako mutila.

Piriniotako mendi-punta batean, bakkarririk, eta inork topatzeko esperantzarik gabe sugedorriak helduko bazintu?" Ez dakit, agian goitik behera laguntza bila jaistea izango litzateke zuzenena, beti ere, urduri jarrita eta lasterka eginez pozoia odolean azkarago zabaltzen dela kontuan hartuz. Dena den, norberak pairatzea baino, hobe izango da hau filmeren batean ikustea, ezta?



* Biologoa

Eskerrak
Artikulu hau idazteko Ricardo Erce eta Jose Mari Arraizak egindako lana erabili dut. Mila esker beraiei.